



Elorrioko udala

IRAGARKIA

2025-2026 ikasturtean euskara ikasteagatik, Elorrioko Udalaren 2026 urteko dirulaguntzaren deialdia eta oinarriak. (2026-00998 espedientea).

Alkatetza-ebazpen bidez, 2026ko apirilaren 9an, 2025-2026 ikasturtean euskara ikasteagatik, 2026ko dirulaguntza deialdia eta oinarriak onartzea erabaki zen. Beraz, dagozkion oinarri espezifikoak osorik argitaratzen dira.

Deialdi hau 2008ko abenduaren 18an egindako Ohiko Osoko Bilkuran onartutako Dirulaguntzen Oinarri Arautzaileen arabera egin da (2009ko martxoaren 9ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuak). Bi aldaketa izan zituen: lehena, 2010eko otsailaren 11n Osoko Bilkurak onartua (eta maiatzaren 10ean BAOn argitaratua) eta bigarrena, 2011ko abenduaren 28an Osoko Bilkurak onartua (2012ko otsailaren 10ean BAOn argitaratua).

Elorrio, 2026ko apirilaren 10a

Maria Herrero Arriolabengoa

Jarduneko alkatea



Elorriko udala

EUSKARA IKASTEAGATIK 2025-2026 IKASTURTEAN, ELORRIOKO UDALAREN 2026ko DIRULAGUNTZA DEIALDIA (2025-00998 esped.)

Elorrioko Udalak, 2010eko otsailaren 11ko Udalbatzaren Ohiko saioan, Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra onartu zuen, 2010eko maiatzaren 10ean argitara eman zena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

Era berean, oinarri hauek martxoaren 1eko 1/2023 Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea zein Elorrioko Berdintasunerako V. Plana (2025-2030) aintzat hartuta bete beharko dira.

Aurreko guztia kontuan hartuta eta Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoari jarraiki, dirulaguntza hauetarako deialdia egiten dut, ondoko oinarrien arabera.

1. DIRULAGUNTZAREN XEDEA

Elorrioko Udaleko Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren eta Euskara Ordenantzaren ardatz estrategikoei jarraituta, dirulaguntza honen xedea udalerrian euskara sustatzea da, herritarrei euskara ikastaroetako matrikula ordaintzen lagunduta.

Hori horrela, 2025/2026 ikasturtean zehar helduentzako euskara ikastaroetara joateagatik Elorriko erroldatutako biztanleentzako dirulaguntzak emateko baldintzak arautzen dira deialdi honetan.

2. AURREKONTU KREDITUA ETA DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA

Dirulaguntza hauetarako erabilgarri dagoen kreditua 11.600 eurokoa da, eta dagokion gastua 2026ko 3350.480.14 aurrekontu-partidari ("Euskalduntzea eta prestakuntza") egotziko zaio.

Aurrekontu-atal honetan, behar izanez gero, diru-hornidura gehigarria egin ahal izango da, deialdi berririk egitea beharrezkoa izan barik.

3. ONURADUNAK

Dirulaguntza honen onuradunak Elorriko erroldatutako 16 urtetik gorako pertsona fisikoak izango dira; beti ere, 38/2003 Legeak, Dirulaguntzen Orokorrak, 13. artikuluan edo Dirulaguntzen Udal Ordenantza Orokorrak 10. artikuluan jasotzen dituen egoeretako batean aurkitzen ez badira.

Laguntza, egindako ikastaro bakoitzeko emango da, izandako asistentziaren arabera.

Era berean, euskaraz eta euskararen inguruan antolatutako ikastaroetan parte hartu duten hamasei urtetik gorako pertsona fisikoek ere laguntza jasotzeko eskubidea izango dute.

Onuraduna izateko, eskatzaile bakoitzak honako baldintzak bete behar ditu:



- ✓ Ikastaroa hasten den egunean hamasei urte beteta izatea, eta ikastaroa amaitu baino hiru hilabete lehenago Elorrioren erroldatuta egotea.
- ✓ Gutxieneko asistentzia izatea ikastaro motaren arabera. Deialdi honetako bosgarren puntuari zehazten dira ikastaro motak, asistentzia eta laguntzak.
- ✓ Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzaren egunean egotea.

Ikastaroa diruz lagundu ahal izateko, ikastaroa egin den euskaltegiak homologatua izan behar du. Beraz, dirulaguntzatik kanpo geratzen dira Hizkuntza Eskola Ofizialetan egindako ikastaroak, lantokiko programen bidezko ikastaroak (IRALE, HAEE, Osakidetza...) eta enpresa edo erakundearen aldetik dirulaguntza jasotzen duten ikastaroak.

Dirulaguntzatik kanpo geratuko dira ere graduondoko, doktorego, master eta karrerako ikastaroak.

Era berean, dirulaguntzatik kanpo geratuko dira mintzapraktikara soilik bideratutako ikastaroak.

Bestalde, ezin izango dira dirulaguntza hauen onuradun izan:

- Administrazio-bidean, lan-bidean edo zigor-bidean berdintasun-eskubidea urratzeagatik eta sexuan oinarritutako bereizkeria egiteagatik zehapen irmoa jaso duten pertsona edo entitateak.
- Era berean, ezin izango dute onurarik jaso Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu batekina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarritako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritako betebeharrak betetzen ez dituzten pertsonak edo erakundeak.

4. ESKABIDEA-ORRIAK ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

1.- Eskabide-orriak aurkezteko epea deialdiaren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik aurkeztu ahal izango da, eta epea 2026ko azaroaren 13ra arte egongo da zabalik.

Diruz lagunduko dira 2025eko urritik 2026ko irailaren 30era bitartean egindako ikastaroak.

Erabili beharreko eskabide-orria I. eranskinean agertzen dena izango da eta udaletxeko HAZen, udal erregistroan, aurkeztuko da 08:00 eta 14:30ak bitartean, edo, eskabide orriak aurkeztu ahal izango dira urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua aurreikusten dituen bideen bitartez.

2.- Eskabideak, Elorrioko Udalak laguntza horietarako ezarritako eredu espezifikoan aurkeztuko dira, eta eskabidearekin batera, honako agiri hauek ere aurkeztu beharko dira:

- ✓ Matrikularen ordain-agiria edo zentroak egindako ziurtagiria.
- ✓ Euskaltegiaren ziurtagiria ondoko datuekin: ikastaroaren hasiera eta amaiera egunak, ordutegia, hasierako maila eta amaieran lortutakoa, ikastaroaren ordu teorikoak zein



ikasleak emandako orduak (asistentzia) eta matrikularen prezioa. Matrikularen prezioa euskaltegiak ezarritakoa izango da eta ez ikasleak benetan ordaindutakoa.

- ✓ Beste dirulaguntzarik jaso duenaren edo jaso ez duenaren zinpeko-deklarazioa, jasotako kasuan, jasotako diru-kopurua.
- ✓ Hirugarrenen alta behar bezala beteta. Agiri hau paperean edo online egin daiteke. Agiri hau ez da aurkeztu behar izango aurreko urteetan Elorriko Udalak egindako deialdietan aurkeztu badira, beti ere, agiri horiek edo hauek jasotzen dituzten datuak aldatu ez badira.

<https://www.elorrio.eus/eu-ES/izapideak/Orriak/procedimiento-detalle.aspx?id=295cb091-c85c-4be0-b4f4-c485119cdb35>

- ✓ Karnetaren (NAN), pasaportearen edo AIZren fotokopia.

Eskaera egitean eskatzaileak oinarri hauek eta deialdia baldintza barik onartzen ditu, eta baimena ematen dio Elorriko Udalari beharrezko egiaztapenak egiteko.

3.- Hasierako eskabideak urriaren 1eko 39/2015 Legearen 66. artikuluan adierazitako betekizunak bete ezean, edo 67. artikuluan adierazitakoak, edo aplikatzekoa den berariazko legeriak eskatutako beste batzuk, hamar eguneko epean interesdunari akatsa zuzentzeko eskatuko zaio, edo nahitaezko agiriak aurkezteko; eta adieraziko zaio, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, 21. artikuluan aurreikusitako baldintzetan jasotzen den eran.

4.- Eskabidea ikastaroa egin duen pertsonaren izenean egingo da eta berak sinatuta aurkeztuko da.

5.- Egindako ikastaro bakoitzak espediente independente bat izapidetzea ekarriko du, eta, ondorioz, eskaerek ezingo dute espediente bakoitzeko ikastaro bat baino gehiago sartu. Eskaera berean ikastaro bat baino gehiago agertzekotan, Udalak hamar egun balioduneko epea emango dio eskatzaileari, izapidetzean kontuan hartu beharreko ikastaroa erabaki dezan. Emandako epe barruan ez bazaio errekerimenduari erantzuten, eskaera ezetsi egingo da.

6.- Eskatzaileak matrikulatu den zentro berean amaitu beharko du ikastaroa.

5. DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA

Dirulaguntzak asistentziaren eta ikastaro motaren arabera esleitu dira era honetan:

- ✓ Trinkotasun txikikoak:

Astean 10 ordu baino gutxiagoko ikastaroak dira, normalean urrian hasi eta ekainean amaitzen direnak. Hiruzpalau hilabeteko ikastaroak ere lagundu ahal izango dira, betiere ikastaroak gutxienez 100 orduko iraupena badu.



Elorrioko udala

Asistentzia %80-%90 bitartekoa denean, matrikularen %75a ordainduko da; gehienez 300 €.

Asistentzia %90etik gorakoa denean, matrikularen %90a ordainduko da; gehienez 350 €.

Asistentzia %100 denean, matrikularen %100a ordainduko da; gehienez 400 €.

Nolanahi ere, trinkotasun txikiko ikastaroetan dirulaguntza jasotzeko eskubidea izango dute:

- ✓ Dagoeneko hasita dagoen ikastaro batean matrikulatzen diren ikasleek, betiere ikastaroan sartu den egunetik aurretik arteko asistentzia gutxienez % 80koa bada. Kasu honetan, ikasleak ordaindutako prezio berriaren %60ko laguntza jasoko du, gehienez 200 euro.
- ✓ Ikastaroa hasi eta ikaslea baja bada justifikatutako arrazoren batengatik: gaixotasuna, amatasuna, lana, herritik alde egin behar izatea...ikasleak baja izan den egunera arteko asistentzia hartuko da kontuan, gutxienez %80koa, eta ordaindutakoaren %60ko laguntza izango du, gehienez 250 €.
- ✓ Trinkotasun handikoak:

Astean gutxienez 20 orduko ikastaroak. Diruz lagundua izateko, ikastaroak gutxienez 80 ordukoa izan behar du eta ikaslearen gutxienez asistentzia %90ekoa. Matrikularen %75a ordainduko da.

Trinkotasun handiko ikastarotzat hartuko dira azterketak prestatzera zuzendutako ikastaro laburrak. Kasu honetan, ikastaroak gutxienez 80 ordukoa izan behar du eta laguntza jasotzeko gutxienez asistentzia %90. Matrikularen %50a ordainduko da.

Barnetegiak:

Barnetegi izaera izateko, eguneroko jarduera guztiak ikasten den zentro eta herri berean egin beharko dira, lo egitea barne. Laguntza jasotzeko, barnetegiak gutxienez aste biko iraupena izan behar du.

Laguntzarako matrikularen kostua hartuko da kontuan eta ez egonaldi eta mantenu gastuak.

- ✓ 15 egun arteko barnetegiak:

Egiaztatu beharreko asistentzia gutxienez % 95a izango da. Matrikularen %80a ordainduko da.

- ✓ 15 egunetik gorako barnetegiak: Egiaztatu beharreko asistentzia % 90a. Dirulaguntza matrikularen %85a izango da.

Autoikaskuntza:

- ✓ 160 orduetik gorako ikastaroak



Elorrioko udala

Asistentzia %80-%90 bitartekoa denean, matrikularen %75a ordainduko da; gehienez 350 €.

Asistentzia %90etik gorakoa denean, matrikularen %90a ordainduko da; gehienez 375 €.

Asistentzia %100 bada, matrikularen %100 ordainduko da; gehienez 400 euro.

✓ 75-120 ordu tarteko ikastaroak

Asistentzia %80-%90 bitartekoa denean, matrikularen %75a ordainduko da; gehienez 240 €.

Asistentzia %90tik gorakoa denean, matrikularen %90a ordainduko da; gehienez 270 €.

Asistentzia %100ekoa bada, matrikularen %100 ordainduko da; gehienez 300 euro.

Ikastaro espezifikak:

Euskarari buruzko euskaraz emandako ikastaroak. Asistentzia %90a denean, edo aprobetxamendua justifikatzen denean, matrikularen %50a ordainduko da; gehienez 200 euro. Egindako ikastaroaren ziurtagiria aurkeztu beharko da matrikularen prezioa, asistentzia eta aprobetxamendua adieraziz.

6. PROZEDURA, INSTRUKZIOA ETA ERABAKIA

1.- Eskabideak aurkezteko epea itxi ondoren, arloko zerbitzu teknikoek eskabideak eta agiriak aztertuko dituzte balorazio-txostena egiteko. Euskara eta Hezkuntza Informazio Batzordeak balorazio-txostenaren diktamena aurkeztuko du Tokiko Gobernu Batzarrek ebazteko.

Dirulaguntzen instrukzio organoa osatuko dutenen arteko genero parekidetasuna egongo da. Ordezkaritza orekatua dagoela ulertuko da lau kideetik gorako organoetan sexu bakoitzeko kideek %40ko ordezkaritza dutenean gutxienez. Gainerako kasuetan, pertsona bakarrek ez bada, sexu bietako pertsonak ordezkatu beharko dituzte.

Fase honetan Elorrioko Udalak, instrukzio organoaren bitartez, aurkeztu diren proposamenak konparatu eta baloratu beharko ditu, onuraduna nor izango den zehazteko emakume eta gizonen arteko berdintasun irizpidea kontuan hartuz.

2.- Prozeduraren gaineko erabakia hartzeko eta jakinarazpena egiteko epea ez da sei hilabete baino gehiago luzatuko. Gehienezko epe hau igaro bada erabakiaren gaineko bidezko jakinarazpenik barik, interesdunek ulertu beharko dute eskaera, administrazio-isilbidez, atzera bota dela.

Interesdunek Erabakiaren jakinarazpena urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40 artikulua eta hurrengoek arautzen duten eran betez jasoko dute.



Hartutako erabakiak administrazio bideari amaiera emongo dio, eta erabakiaren kontra Udaleko alkatearen aurrean berraztertzeko errekurtsua tartekatzeko aukera egongo da, edo baita zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsua tartekatzeko Bilboko dagokion auzitegian. Hori guztia, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikulua eta hurrengoek, eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen 29/1998 Legearen arabera.

7. BATERAGARRITASUNA BESTE DIRULAGUNTZA BATZUEKIN

Dirulaguntza hau bateragarria da estatuko edo Europar Batasuneko edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatuk edo nazioarteko beste erakunde batzuk emandako helburu bereko beste diru-sarrera edo baliabide batzuekin, salbu eta dirulaguntzaren ezaugarrietatik kontrakoa ondorioztatzen bada eta gainfinantzaketarik ez badago.

8. ELKARRERAGINGARRITASUNA: ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEA AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA BERRIKUSTEKO ETA IKUSKATZEKO.

Elorrioko Udalak dokumentuak eta informazioa eskatu ahal izango dizkie beste administrazio batzuei, elkarreragingarritasunaren esparruan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 5. artikuluan arabera. Horren helburua da eskatutako dirulaguntzen kudeaketa erraztea eta administrazio-izapideen eraginkortasuna bermatzea.

Udal honek beste administrazio batzuetan norbere datuak eta dokumentuak kontsulta ez ditzan eskubidea du eskatzaileak. Eskubide horretaz baliatzea erabakitzen badu, behar bezala arrazoitutako idatzia egin beharko du, eta zergatia adierazi. Behar den moduan arrazoiu gabeko erabateko ezetzik ez da onartuko. Datuak eskatzearen aurka egiteko idatzia dirulaguntzak eskatzeko epean aurkeztu behar du.

Oposiziorako idatzian honako datu hauek zehaztu behar ditu behintzat, eskatzaileak:

- Eskatzailearen datuak.
- Zer dokumentu edo datuei egiten dien aurka zehaztu.
- Informazioa kontsultatzearen aurka egiteko arrazoiak adierazi eta haien justifikazioa.

Eskatzaileak baliozko oposizio arrazoitua aurkezten badu, Administrazioak oposizio hori ebaluatuko du, eta erabakiko du ea egokia den beste administrazio batzuei dokumentuak eskatzen jarraitzea. Oposizioa ezesten bada, dirulaguntza izapidetzeko behar den informazioa eskatuko da.

Dirulaguntzen eskaerak sinatzeak berekin dakar dirulaguntzaren oinarrietako baldintzak onartzea, eta dokumentuak kontsultatzearen aurka egiteko eskubidea aitortzen du, bai eta



Elorrioko udala

oposizio hori dirulaguntzen eskabideak aurkezteko epearen barruan modu arrazoituan aurkezteko betebeharra ere.

Arestian adierazitakoa gardentasunaren eta datuen babesaren arloan indarrean dagoen araudiak arautuko du, bereziki, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Legeak eta (EB) 2016/679 Erregelamenduak, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoak.

9. DIRULAGUNTZAREN ORDAINKETA

Deialdiaren gaineko erabakia hartuta eta interesdunei erabakiaren gaineko jakinarazpena egin ondoren, onartutako diru-kopuru osoa ordainduko zaio.

Ordainketa, interesdunak emondako kontu zenbakian egingo da transferentzia bidez, gehienez, erabakia hartu den egunetik hurrengo hilabetearen barruan.

10. DIRULAGUNTZEN ITZULKETA

Itzulketa, Dirulaguntzen Udal Ordenantza Orokorrak, Dirulaguntzen Lege Orokorrak eta aplikagarria den gainerako araudiak xedatzen duten moduan egingo da. Edozelan ere, jasotako zenbatekoa itzuliko da justifikatzeko agiririk aurkeztu ez denean, edo behar moduan justifikatu edo behar beste agiri aurkeztu ez denean. Osorik bete ez denean, itzulpena ez-betetzeari dagokion zenbatekora mugatuko da. Bardin egingo da gainfinantzaketa dagoela egiaztatzen bada dirulaguntza justifikatzeko aurkeztutako agirietan.

11. DATU-BABESA

Elorriko Udalak, IFZ: P4803900B, helbidea Herriko Plaza z.g. Elorrio (48230), Bizkaia, emandako datu pertsonalak erabiliko ditu dirulaguntzen deialdi hau kudeatzeko. Tratamendu hori legitimatzen duen oinarria Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen Testu Bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren ondoriozko legezko betebeharrak bat betetzea da.

Datu horiek behar-beharrezkoak diren zerbitzuak ematen dituzten hirugarrenei baino ez zaizkie jakinaraziko, eta ez zaizkie hirugarrenei lagako, legezko betebeharra edo interes publikorako ez badira behintzat.

Elorriko Udalak datu pertsonalak gordeko ditu erantzukizunen bat eska dakiokkeen legezko epean.

Dirulaguntzen deialdi honetan eskatutako datuak behar-beharrezkoak dira lehen adierazitako helburua behar bezala lortzeko; beraz, datu horiek eman ezean, Udalak ezin izango du bermatu prozeduran behar bezala parte hartuko duenik.

Nolanahi ere, interesdunak datuetara iristeko, datuak zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko eta mugatzeko eskubideak baliatu ahal izango ditu, alkatea@elorrio.eus helbidera idatzizko



Elorrioko udala

eskaera bidalita. Interesduna Udaleko Datuen Babeserako Ordezkariekin (DPO) harremanetan jarri ahal izango da, helbide elektroniko honetan: dpo@elorrio.eus

Era berean, jakinarazten dizugu Datuak Babesteko Euskal Bulegoan erreklamazioa aurkezteko eskubidea duzula.

12. ARAUDI APLIKAGARRIA

Oinarri hauetan aurreikusi ez den guztirako Dirulaguntzen Lege Orokorrak, 38/2003, legea garatzen duen Araudiak eta aplikagarria den gainerako araudiak xedatzen dutena aplikatuko da.